

1977 EGARRI EGUNAK ZINEMALDIAN

Irailaren 18tik 26ra bitartean egingo da aurtengo Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 68. edizioa, eta koronabirusak erabat markatuta etorriko da. Baina azken urteetan barrura begira ere jarri da Zinemaldia: Elias Querejeta Zine Eskolarekin batera bere artxiboa ikertzen hasi eta memoria kolektibotik ezabatuta geratu diren edizioak agertzen hasi dira. 1977koa, adibidez. Berriki Gasteizko Artium museoan inauguratu den erakusketa batek Frankismo-osteko lehen festibala nolakoa izan zen irudikatzen laguntzen du: aurreko jaialdi ereduarekin apurketa erradikala bilatu zuten orduko antolatzaileek eta Zinemaldia pelikula iraultzaile baten saio jarraitua bihurtu zen zenbait urtez.

Baliteke aurtengoa izatea Donostiako Zinemaldiak aspaldian izan duen ediziorik bereziena, COVID-19aren aurrean hartu beharreko segurtasun neurriek erabat baldintzatuta hasiko baita festibala: antolakuntzak artaziak sartu behar izan ditu programazioan eta iazko edizioarekin alderatuta 159 emanaldi gutxiago izango dira 2020an –%23ko jaitsiera–, pelikula gutxiago programatuko dituzte –2019arekin konparatuta minus 65, %31ko murrizketa– eta oro har birusak markatutako edizioa izango da, aretoetan ere jende kopurua asko kontrolatuko baita, Kurasaalean gehienez 600 lagun sartuz, denak derrigorrez maskara jantzita, emanaldien arteko desinfekzioak, zenbakidun sarrerak positiboan jarraipena errazago egin ahal izateko, publikorik ez izarrak

alfonbra gorritik pasatzen direnean... José Luis Rebordinosek zuzentzen duen taldeak uztailean baztertu zuen Zinemaldia bertan behera uztea, baina baita aurtengoa ohiko edizioa izatea ere. Ez dago baldintzarik orain arte ezagutu dugun zine jaialdia egiteko, pantaila handiak ezin dio bizkarra eman inguruko klimari. Kalea maskarada distopikoa baldin bada, zine proiektzioak horren ispilu izango dira.

Baina egoerak beldurrezko pelikuletarako osagaiak eskaintzen baditu ere, badi-rudi Zinemaldiak eta Elias Querejeta Zine Eskolak zirrikitu bat ireki nahi izan dutela gidoi katastrofistan, festibalaren iraganari begira jarritz. Irailaren hasieran EHUn Udako Ikastaroa antolatu zuten, *Zine-jaialdiei buruzko begirada kritikoak* izenburupean; eta hil honen 9an inauguratu da Gasteizko Artium museoan –zeina murrizketen eta kaleratzeen erruz lan-ga-



**AUZOAK ETA HERRIAK
ZINEMALDIRA.**

1977ko edizioaren apustu erradikalenetako bat "Auzoak eta herriak" saila izan zen, Zinemaldia deszentralizatu eta langile auzoetara ino eraman baitzuen. Ordura arte ez bezalako jendea hasi zen agertzen Zinemaldiko publikoan.

tazka handi samarrean murgilduta da-
goen– *Zinemaldiak 24 edizio izan ditu:*
ez dugu gogoko erakusketa. Azken ho-
nen izenburuak 1977ko Zinemaldiko
aldizkarian agertutako esaldi bati egi-
ten dio erreferentzia, izan ere, duela
43 urte, kalean birusen ordeztuakabil
itsutuak, gas potoak, zer eskatzen du
herriak, haustura ala erreforma ezta-
baidak bolbora bezala zebiltzanean,
Donostiako Zinemaldiak ere utzi egin
zuen ordura arte Francoren erregimen
faxistaren hegalean egindako bidea,
bide berri eta ezohikoak hartuz.

Pablo La Parra ikerlari eta zine esko-
lako irakaslea izan da aipatutako bi egi-
tasmoen bultzatzaile nagusia eta, bere
gidaritzapean, Zinemaldiaren artxibotik
berreskuratu dira ahaztu samar geratu
diren historiak, pentsarazten dutenak
irailean Gipuzkoako hiriburuak zinema-
rekin izaten duen zita iritsi zela beste
zerbait izatera, orain ezagutzen duguna
ez bezalako zerbait, herritarren parte
hartze handiagoa zeukana, garaiko ezta-
baida politiko eta sozialen pultsua hartu
zuen, hiriko auzoekin eta inguruetako
herriekin konexio handiagoak bilatu zi-
tuena eta, noski, deserosoagoa bihurtu
zena orduko botere politiko eta eko-
nomikoentzat. Atzera begirako ariketa
kritiko horrek garrantzia izan dezake
orain, kultura pandemiaren albo-kalteen
zerrendaren goialdean agertzen ari de-
nean, sektoreak etorkizunari beldurrez
begiratzen dion uanean. Beharbada Kris-
tin Ross historialariak 219. *Larrun* aldiz-
karian planteatutakoa berreskuratzeko
unea da Zinemaldiarentzat ere: zer ira-
gani begiratu, nolako etorkizuna ima-
jinatzeko. Eta alde horretatik ez dago
zalantzarik, 1977ko edizioak bestelako
etorkizun batzuen posibilitateak erakus-
ten ditu hemendik aurrera antolatuko
diren Zinemaldientzat.

FESTIBAL FRANKISTATIK HERRIAREN ZINEMALDIRA

Donostiako Zinemaldia 1953. urtean
sortu zen, alegia, gaur egungo Europako
zine-jaialdi garrantzitsuenen hamarka-
da berean –Venezia, Cannes, Berlin, Lo-
carno–. Ez da kasualitatea: Gerra Hotz
betean, zine jaialdi bat “diplomazia kul-
turalako aparatu konplexua zen”, dio La
Parrak Artiumeko erakusketari testuin-
gurua emanez idatzi duen artikuluan.
Adibidez, filmak estatu bakoitzeko en-
baxadek edo zinema institutu ofizia-
lek aukeratzen zituzten; eta festibalak,
nolabait, zinemaren “Joko Olinpiko”

1976ko Zinemaldiak
ozta-ozta lortu zuen
amaitzea, klima
politiko eta sozial
beroaren erdian.
Festibalaren azken
edizio frankista izan
zela esan liteke

modura pentsatzen ziren. Donostiako
festibalak, gainera, Francoren erregi-
men faxistarentzat nazioarteko ones-
pena bilatzeko tresna izan nahi zuen.
Esan liteke produktu arrakastatsua izan
zela, sortu eta lau urtera FIAPFek (Na-
zioarteko Film Ekoizleen Elkartearen Fe-
derazioa) goi mailako kategoria eman
baitzion.

Gero, hurrengo hamarkadaren amaie-
ran, iceberg geopolitiko hori apurka
kraskatuko zuten 68ko maiatzak eta
haren ostean hasitako borroka-zikloak,
Europako zine-jaialdietan ere arrasto
sakonak utziz –irakurri Cannes, Berlin
eta Veneziako festibalen eraldaketari
buruzko koadroa erreportaje honetan–.
Donostiako festibalak, ordea, erregimen
frankistaren atzaparretan jarraitu zuen
Miguel de Echarriren gidaritzapean, bai-
ta seinale guztiek aldaketaren beharra
erakusten zutenean ere.

Bernardo Bertolucci
Intxaurrondon?
"Auzoak eta herriak"
izeneko sailari
esker, Zinemaldia
deszentralizatu eta
langile-auzoetara
iritsi zen

1975: Suediako Zinematografia Ins-
titutuaren zuzendari Harry Scheinek
telegrama bidez Donostiako festibala-
ri iragarri dio pelikula suediar guztiak
erretiratuko dituztela urte hartako edi-
ziotik, Garmendia eta Otaegi ETA poli-
tiko-militarreko kideen aurkako herio-
tza-zigorrengatik. De Echarrik erabakia
irentsi beharko du, baina erantzungo
dio onartezina dela “herri honetako bar-
ne-arazoetan” muturra sartzea.

1976: irailaren 8an Guardia Zibi-
lak Josu Zabala tiroz hilko du Honda-
rrribian. Krimenari erantzunez sutan
jarriko da Euskal Herri erdia. Garrak
Donostian. Hastear den festibala ber-
tan behera uzteko eskatzen dute, baina
de Echarrik berean jarraituko du. Eta
gertatuko dena gertatuko da: Luchino
Viscontiren *L'Innocente* filmarekin ha-
siko da jaialdia edo, nondik begiratzen
zaion, minutu batzuk lehenago Victoria
Eugenia antzokiaren atarian poliziak
egingo du inaugurazio ekitaldia, zakur
gosetien hortzak estuturik, ezker-es-
kuin borra-kolpeka, tiroka, manifes-
tariak eta zinemara zihoazen aginta-
riak bereizi gabe. Egoeraz nazka-nazka
eginda dauden gazte militanteak no-
nahi agertzen dira, baita festibalaren
nazioarteko epaimahaia afaltzen ari
den jatetxean ere, dena hankaz gora bo-
taz. Eta errematerako, greba orokorra
Zabalaren doluz. Herriak ez du barkatu-
ko, hiri osoa poliziaz josita; disimulatu
nahi du festibalak, esan nahi du hemen
ez dela ezer pasatzen, eta lortuko du
nola edo hala urte hartako edizioa bu-
katzea, baina dena aldatu nahi dutenen
bultzada hainbestearainokoa da, urte
hura amaitzerako Donostiako festiba-
laren kudeaketa eskuz aldatuko dela:
Madrilgo Informazio eta Turismo Mi-
nisterioak euskal administrazioen esku
utziko du.

1977: aldaketa sakonak Zinemal-
diaren antolakuntza-batzordean, non
agertuko diren, industriako eta admi-
nistrazio publikoetako kideez gain, herri
mugimenduetako ordezkariak, artisten
elkarteetakoak, zineklubetakoak eta, ba-
tez ere, auzo elkarteetakoak. Aldaketak:
euskara agertzen hasiko da Zinemaldi-
ko karteletan eta aldizkarietan, gaztela-
niak hegemoniko izaten jarraituko badu
ere. Aldaketa gehiago: erbesteratutako
zinegileak Donostiara itzultzen hasiko
dira –Luis Buñuel, Antxon Ezeiza, Luis
Alcoriza–, eta ohorez hartuko ditu jaial-
di berriak. Aldaketak, noski, progra-
mazioan, egarri egunak direlako, egarri



ORDURA ARTE EZINEZKOAK ZIREN ESZENAK. Antxon Ezeiza 1977ko Zinemaldian itzuli zen erbestetik beste zenbait zinegile bezala. Goiko argazkian, *Mina, viento de libertad* filmaren emanaldi osteko solasaldian agertzen da –urte bat lehenago irudi hori ezinezkoa litzateke–. Beheko argazkiko erdigunean berriz, Laura Betti aktorea ikus daiteke, Bernardo Bertolucci zuzendariaren *Novecento* Intxaurren auzoan proiektatu ondoren.



ARTXIBOA HIZKETAN JARTZEN. Pablo La Parra ikerlari eta Elias Querejeta Zine Eskolako irakasleak gidatzen du "Zinemaldia 70" proiektua, Donostiako festibalaren historia berreskuratzeko eta testuingurua emateko bokazioa daukan egitasmoa.

egunak Zinemaldian, urtetan diktadurak lapurtutako askatasunak berreskuratu nahi dira, denak batera, pantailan erakutsiz Venezuelako torturak Aljeria kolonizatua Euskal Herriko salbuespen egoera Federico García Lorca Juan Paredes Manot *Txiki*-ren azken hitzak Eusko Gudariak gara Euskadi askatzeko; eta argiak pizten direnean ere, dena da diferente: "Bazirudien Zinemaldiko edozein bilkurak posizio-hartze borrokarietara zeramala", esplikatu du La Parrak.

Bor-bor horretan, "Auzoak eta herriak" saila ere sortuko da, ikerlariaren arabera "festibal demokratiko berriaren ekimen erradikalenetako bat". Auzo elkarteek bultzatu dute eta Zinemaldia deszentralizatzen lagunduko du, pelikulen proiektzioak langile klaseko auzoetara eramanez, baita Euskal Herri osoko herrietara ere. Moketa gorria, areto noblea eta soineko elegantea besterik eza gutzen ez duen festibalak, urte batetik

bestera Intxaurren auzora eramango ditu Bernardo Bertolucci zuzendaria eta Laura Betti aktorea *Novecento* aurkeztera. Zinemaldiak gainezka egin du, ez da kabitzen pelikulak ikusten ziren ohiko lekuetan, publikoz bete-beteta daude Don Boscon antolatutako emanaldiak; gainezka egin du, beste ezeren gainetik, kontzeptualki. La Parrak azaldu du, urte hartara arte proiektzioek inoiz ez zutela publikoaren solasaldirik aurreikusten, zineklubetatik zetozen antolakuntza-batzordeko kide berriek ekarri zutela praktika hori, eta "Auzoak eta herriak" sailaren eskutik, lortu zutela Zinemaldira ekartzea eraldaketa betean bizi zen gizartearen ahots-polifonia.

IRAULTZA ETA KONTRAIRAULTZA

Dibertsitate hori ez da tranpa gisa ulertzen bestelako mundua nahi dutenak indartsu dabiltzanean, ikusi bestela 1977ko edizio apurtzailearen ondoren

80ko hamarkadan PSOEren Espainiako Gobernuaren eskutik etorri zen Zinemaldiko "kontrairaultza", Diego Galáñen zuzendaritzapean

Zinemaldiaren hurrengo urteetan zer nolako gaiek hartuko duten protagonismoa, hamarkadari forma eman zioten langile borrokatik, nazio askapenetik eta antifrankismotik harago: 1978an emakumeek egindako zinemari eskainitako sail independentea bultzatu zuen Donostiako Emakumeen Asanbladak –besteak beste, Věra Chytilová, Cecilia Bartolomé, Vivian Ostrovsky, Larisa Shepitko edo Agnès Varda ekarri zituzten Donostiara–; 1979an berriaz, poliziak Errenterian Francis trabestia tiroz hil eta gutxira, eta zenbaitek "euskal Stonewall" gisa deskribatu dituzten protesten ondoren, Zinemaldiko "Auzoak eta herriak" sailak Euskal Herriko Gay Aske Mugimendua (EHGAM) gonbidatu zuen LGTB kolektiboaren borrokarekin lotutako filmak aukeratu eta aurkeztera, sortzen ari zen subjektu politiko berri bati publiko zabal baten aurrean agertzeko posibilitatea eskainiz. Edozerk zirudien posible, Francoren erregimenak nazioartean puntuak irabazteko sortu zen festibala azpikoz gora zegoen.

Esan liteke 1980an hasi zela festibal gorri horren aurkako kontrairaultza, FIAPFek –gogoratu: frankismoan Donostiako jaialdia goraino aupatu zuen erakundeak– Zinemaldiari kategorია nagusia kendu zionean, segur aski zigor gisa, sortzen ari zen jaialdi mota ez zelako errentagarria AEBetako estudio handientzat. Lehenagotik sumatzen ziren ildo berriaren aurkako ekintzak ordea: 77an bertan, United Artists ekoiztetxeak ez zuen baimenik eman Pier Paolo Pasoliniren *Salò o le 120 giornate di Sodoma* Donostian proiektatzeko zuzendari ita-

liarrari eskainitako atzera-begirakoan. AEBetako *major*-aren aurkako manifestua sinatu zuten zinemaren eta kulturaren munduko hainbat figurak –besteak beste Jean-Paul Sartre–, susmatzen zutelako film horren proiektzioa ez baimentzearen atzean zine-industria handiaren haserre zegoela, Donostiako zita ezkererantz politizatzen ari zelako.

Noiz amaitu zen erabat espiritu berri-tzaile hura? La Parrak esan duenez, festibalaren historia berraztertzen ari den “Zinemaldia 70” proiektua lantzen ari den hipotesia da Diego Galán zuzendari karguan jarri zutenean hasi zela gauzatzen Donostiako zitaren “normaltasun berria” –gaur egungo hitzekin esateko–. Felipe González buru zuen Espainiako Gobernuarekin eta, zehazki, Zinematografia zuzendari orokorra zen Pilar Mirórekin ongi konektatuta, “ordenara itzulera” izan zen Galánen agintaldia. Misioa argi zegoen: berriz ere FIAPFen kategoria gorena lortzea. Eta horren prezioa izan zen 77tik aurrerako eraldaketa askorekin *rewind* botoia sakatzea: “Auzoak eta herriak” saila desagerrarazi zuten, baita beste berrikuntza erradikal asko urardotu ere. 1985ean berreskuratu zuen bost urte lehenago galdutako kategoria. Geroztik Zinemaldia aldatu da, noski, baina inoiz ez hainbeste, hain azkar, hain sakonki.

77ko espiritu hartatik zerbaitek iraun ote duen galdetuta, La Parrak dio bere ustez “marka batzuk” geratu direla: zinegileekin hitz egiteko aukera ematen duten foroak badira oraindik Donostian eta Zinemaldiaren berezitasunetako bat da publikoak ere ikus ditzakeela estreinaldiak –beste jaialdi batzuetan prentsa-erantzak eta industriako kideentzat erreserbatuta dago pribilegio hori–. Zuzendari berriekiko interesa ere 1970eko hamarkadaren bigarren erdian garatu zen eta, beste gradu batean bada ere, 77tik aurrera sorturiko sail berrien zapora bat badauka oraindik Zabaltegi-Tabalakera sekzioak. Iraganeko dokumentuek sorpresak ere gordetzen dituzte: iazko edizioan berrietasun gisa iragarri zuten Zinemaldiak haurtzaindegi zerbitzua eskainiko zuela, umeen zaintza beren kargu duten pertsonen –gehienetan emakumeen– festibala errazago jarraitu ahal izateko. “Berrikuntza gisa iragarri zen, baina ez: Donostiako Emakumeen Asanbladak zerbitzu hori antolatua zuen 70etan”, azaldu du. Ongi irakurtzen amatuz gero, artxibo bat etorkizunez kargaturiko arma izan daiteke. ●

Cannes, Venezia eta Berlin 1968tik aurrera; Donostia ia hamarkada bat geroago

1 968ko maiatza, Cannes: urte hartako zine jaialdia hasi eta hiru egunera, hilaren 13an, ikasleek festibala hartuko dute. Manifestazioek bultzatuta proiektio asko bertan behera geratuko dira eta zinegileek ere beren ekarpena egin nahi izango diote borrokari. Hainbat zuzendarik –Jean-Luc Godard, Roman Polanski, François Truffaut edo Louis Malle, besteak beste– jaialdia bertan behera uzteko eskatuko dute atxilotutako ikasle eta langileekin elkartzunez. Giroa nahasita dabil Frantziako Estatuko zeluloidearen munduan bes-tela ere, André Malraux Kultura ministroak Zinemateka frantseseko zuzendari Henri Langlois kargutik kendu du eta erabakiak animoak berotu ditu.

Giro zalapartatsu horren erdian jaialdiak aurrera segi nahi du, baina antolatzaileen erabakiaren kontra Louis Mallek, Monica Vittik eta Roman Polanskik epaimahaia utziko dute eta beste zuzendari batzuek –Alain Resnais, Carlos Saura eta Milos Formanek, besteak beste– euren pelikulak aterako dituzte lehiaketatik. Maiatzaren 19an, azkenik, jaialdia bertan behera geratuko da. Ez hori bakarrik: edizio hartako istiluen fruitua da 1969tik Cannesen antolatzen den Zuzendarien Hamabostaldia, festibal ofizialaren paraleloan sortua eta hasieratik edozein zentsura edo presio politikoren aurka zegoela adierazi zuena.

Frantzipar horrek Europako beste zine jaialdietan ere joko du hurrengo urteetan. Adibidez, Veneziako Mostrak 1969tik 1972ra bitartean ez du saririk banatuko eta autokritika prozesu sakona abiatuko du. Italiako zinegileek boikotatu egin zuten jaialdia 1972an eta 73an, zinema italiarraren jardunaldiak antolatuz, oso jendetsuak publiko aldetik eta oso erradikalak politikoki. Protestarako arrazoiak ez ziren falta. Nagusienetako bat, 1968tik behin eta berriz errepikatua, zera zen: Mostrak ez

zituela barne-estatutuak aldatu Benito Mussoliniren erregimen faxista betean sortu zen garaitik. Giro erdi-iraultzailean, 1973an aldatu zituzten azkenik, eta horri esker, Veneziako festibala –baita Arte Biurtekoa ere–, beste modu batera pentsatzeko ateak zabaltu ziren, objektu artistikoen salerosketarako baino, une hartako egoera politikoari erantzuten saiatzeko –Txileko estatu-kolpea, Soviet Batasuneko disidenteak...–.

Berlinaleren kasuan, 1970. urtea izango da inflexio-puntua. Michael Verhoevenen *OK* pelikula lehiaketatik kanpo uztearen alde egingo du epaimahai ofizialak, filma oso kritikoa zelako AEBetako armadarekin eta Vietnamen egin zuten esku-hartzearekin. Zentsuraren aurkako protestak berehala hasiko dira, jaialdia bertan behera geratzeraino. Eta Cannesen edo Veneziaren bezala, festibala planteamendu zinematografiko eta politiko arriskatuagoen bidez birpentsatzeko prozesua hasiko da, zeinean pisu handia izango duten 1963tik Berlinen filmak programatzen ari zen Zinemateka Alemaniarraren Lagunak taldeak: kolektibo horrek 70eko krisiaren ondoren Berlineko lehiaketa ofizialaren paraleloan funtzionatuko duen ekimena jarriko du abian: Forum.

Aurrekari horiek ikusita, La Parrak uste du Donostiako Zinemaldian 1977an gertatutakoa “desplazatutako 68 bat” balitz bezala ulertu behar dela. Beste gauza asko bezala, Europako haize berriak berandu iritsi ziren hona, Francoren erregimenak atzerapen-mekanismo gisa funtzionatu zuen eztabaida politiko eta kulturalentzat. Beharbada berandu ibiltzearen kontzientzia horrek lagun dezake ulertzen zergatik ekin zioten Zinemaldia eraldatu nahi izan zutenek urte haietan hainbesteko grinarekin, atzerriko bisitariak harritzeraino, baita orain, artxiboa hitz egiten hasi denean, garai hura bizi izan ez zuten pertsonak ere.